

# ZALDUONDOKO HIRI ANTOLAMENDUAREN PLAN OROKORRAREN IDAZKETARAKO

## PARTE HARTZE PROGRAMA ETA KOMUNIKAZIO PLANA

2018 MARTXOA

### I. PARTE HARTZE PROZESUAREN HELBURUAK

Zalduondoko Plan Orokorraren idazketan parte hartzearen lehendabiziko helburua herritargoa idazketa honen definizioan kide bihurtzean datza. Prozesuaren **sustapen beharraren, sistematizazioaren eta difusioaren** helburuekin batera.

Hauetz gain honakoak besteak beste:

**PROZESU LEJITIMATZAILE ETA LOTESLEA SORTZEA**

**HASIERATIK BUKAERARAKO PROZESU PARTE-HARTZAILEA DISEINATZEA**

**HERRITARGOAN ERROTUTAKO PROZESU BIZI BAT ELIKATZEA**

**EZAGUTZA, HAUSNARKETA ETA EZTABAIDA SUTATUKO DITUEN PROZESUA SORTZEA**

**INTERES AMANKOMUNETAN OINARRITUTAKO ADOSTASUNAK BILATZEA**

**HIZKUNTZA PARTEKATU BATETAN KOMUNIKATZEA**

**HERRITARGOAREN INPLIKAZIOA HANDITZEA**

**HIRIGINTZA JASANGARRIA ETA GENERO IKUSPEGIA SUSTATZEA**

**EUSKARA BULTZATZEA PLANAREN SORRERAN, DIFUSIOAN ETA IDAZKETAN.**

### II. KRONOGRAMA

Prozesuaren ezaugarri nagusietako bat zera da, eragileak eta orokorrean parte hartuko duten horiek ekarpenak ezingo ditugula talde teknikoaren lanetik bereizi, hauen arteko harremana kateatuz, hau da, materialak bata bestearengandik sortuz komunitatearen eta talde teknikoaren arteko ezagutza gurutzatuz Alegia.

Prozesua bi fase nagusitan banatuko da aurrerapen dokumenturarte, diagnostikoarena lehena eta proposamen fasea bigarrena.

			DESKRIBAPENA	eragileak			
				UDALA	TEK.	HERR.	
FASE 0	Parte Hartze Programa		PHP zirriborroaren aurkezpena				
			Talde Dinamika				
		CT	Komisio teknikoa				
		G1	Genero ikuspegitik eginiko deskribapen orokorra				
		PC	Komunikazio plana				
		PPC	Parte Hartze Programa				
	P1	Aurkezpena: "Zalduondoko Plan Orokorra" "Puzzle erraldoia"					
FASE 1	Diagnostikoa	DO	Diagnostiko Objektiboa				
		DS	T1	Tailerra "Zalduondoko haurrak"			
			T2	Tailerra "Gazteak"			
			T3	Tailerra "Adinekoak"			
			T4 (G2)	Tailerra. Genero ikuspegia.			
		DC	T5	Diagnostiko bateratua			
			G3	Berdintasunerako neurriak			
P2	Aurkezpena: "DIAGNOSTIKO BATERATUA"						
FASE 2	Erabilera azterketak		Eremuen identifikazioa				
		T6	Tailerra "hirigintza erabilerak"				
		T7	Tailerra "ingurune erabilerak"				
		T8	Tailerra "komunitate erabilerak"				
	Alternatiben sorrera	P3	Aurkezpena: "Laburpen Planoak"				
			Ereduren definizioa				
			Estrategiak eta eskenatokiak				
		T9	Tailerra "Alternatibak"				
		P4	Amaierako aurkezpena				
FASE 3		P5	Jendaurrean jarri aurreko aurkezpena				
		AP1	Arreta herritarrei				
FASE 4	DAI	Hasierako onarpenerako dokumentua					
FASE 5		P6	Jendaurrean jarri aurreko aurkezpena				
		AP2	Arreta herritarrei				
FASE 6	DAE		Ingurumen estrategia deklarazioa				
	DAP	P7	Behin behineko onarpenerako dokumentua				
FASE 7	VR		Errekurtso bideko txostena				
FASE 8	DAD		Behin betiko onarpenerako dokumentua				
	TR		Texto Bateratua (B)				

PPC: Programa de Participación Ciudadana

CT: Comisión Técnica

G: Perspectiva de género

PC: Plan de comunicación

P: Presentación pública

DO: Diagnóstico Objetivo

DS: Diagnóstico Subjetivo

DC: Diagnóstico Compartido

T: Taller

AP: Atención al público

DAI: Documento de aprobación inicial

DAE: Declaración Ambiental Estratégica

DAP: Documento de Aprobación Provisional

VR: Informe en vía recurso

DAD: Documento de Aprobación Definitiva

TR: Texto Refundido

### III. EKINTZEN MEMORIA

#### III.1. SARRERA

Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen helburu eta printzipio orokorren artean, horietako bat herritarrek parte hartzeko duten eskubidea bermatzea izan da, herritarrek parte hartzeko programen bidez. Lehenengo tresna hori programa honetan gauzatu egingo da, herritarrei egun indarrean dauden Arau Ordezkoak ordezkatuko dituen Zalduondoko Hiri Antolakuntzarako Plan Orokorra proposatu, bideratu eta onesteko prozesuan parte hartzeko eskubidea erabiltzeko aukera emateko bitarteko nahikoak biltzen baititu.

#### III.2. LEHEN FASEA: UDALERRIAREN DIAGNOSIA HERRITARREKIN BATERA

Talde idazleak ikuspuntu objektibotik idazten duen bitartean (demografia, arlo sozio-ekonomikoa, etxebizitza, mugikortasuna, ingurumena, eta gainerako gai sektorialeiei buruzko txostenak idatziz), herritarrentzako tailerrak prestatu eta burutuko dira. Tailer hauek biztanleria orokorrean hartzeaz gain multzoka kontuan izanda ere antolatuko dira, gazteak, adinekoak, gaztetxoak eta emakumeak, hirigintzak alboratu ohi izan dituen sektoreei ahotza emateko asmoarekin.

#### III.3. BIGARREN FASEA: AURRERAPIDEAREN IDAZKETA

Diagnosia elkarrekin egin ondoren, hau da talde idazleak egindako txostenak gehi herritarrek gehituko dioten elementu subjektiboa, fase propositiboa herritarrekin burutzea du helburu. Horretarako hiru tailer mota egingo dira: erabilera urbanistikoa, ingurumenarekin zerikusia duten erabilerarena, eta gizarte mailako erabilerak. Hiru prozesu horien ondorioz laburpeneko planoak eta agiria idatziko dira, Plan Orokorren idazketarako irizpide, helburu eta konponbide orokorrena, hurrengo fasean jendaurrean jarrita izan dadin.

#### III.4. IRIZPIDE, HELBURU ETA KONPONBIDE OROKORREN AGIRIA JENDAURREAN AGERTZEA (AURRERAKIN-AGIRIA)

Zalduondoko Udalak hasierako onespeneraren agiria idatzi baino lehen egingo diren alde zuretik azterlanen jendaurreko informazio epean edukia zabaldu, informatu eta herritarrek parte hartzeko honako ekintzak egingo lituzke:

Jendaurrean agertzeko epea, gutxienez 2 hilabetez, dagokion iragarkia Arabako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik aurrera zenbatzen hasita.

- Jendeari irekitako informazio bilerak:
  - Agiriak idatzi dituen lan-taldeak hitzaldia emango du herritarrei, oro har, eta interesdunei zuzenduta, agirien edukia azaltzeko.
  - Liburuxka edo antzeko euskarria, paperean zein digitala, bat egingo da herritarren artean banatzeko.
  - Batzarra: Proposamen berriak aurkeztu eta herritarren iritzia biltzeko.
  - Bilerak: Gazteria, hirugarren adina, emakumeak bezalako biztanleri sektore estrategikoen interes bereziak jasoko dituzten bilerak egitea.
- Udalaren bulegoetan planoak erakutsiko dira eta prozesuaren eta honen edukiak ikustarazteko eskualdeko web orrian lotura bat sortuko da.
- Toki-mailako kronikak: Komunikabideei informazio emango zaie.

### III.5. HASIERAKO ONESPENAREN AGIRIA JENDURREAN AGERTZEA

Herritarrei hasierako onespenaren agiria jendurrean agertzeko epean parte hartzeko eskubidea erabiltzeko aukera emateko honako bitartekoak ezarriko dira:

Plan Orokorren egitasmoa hasieran onetsi eta gero, Udalak jendurreko informazio epea irekiko du, horretarako hasieran onesteari buruzko erabakia Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean eta gehien saltzen den egunkarietako batean edo gehiagotan argitaratuko da. Gutxieneko epea berrogeita bost egunekoa izango da, azken argitalpenetik aurrera zenbaitzen hasita.

Era berean, informazioa zabaltzeko bitarteko hauek ezarriko dira:

- Jendeari irekitako informazio-bilerak.
- Agiria idatzi duen lan-taldeak hitzaldia emango du hasierako onespenaren agiriaren edukia azaltzeko.
- Herri Batzarra ospatuko da egiten den proposamenaren berri emateko zalduondoar guztioi.
- Liburuxka bat egingo da interesdunei bidaltzeko eta herritarren artean banatzeko. Udalaren bulegoetan planoak erakutsiko dira eta prozesuaren eta honen edukiak ikustarazteko eskualdeko web orrian lotura bat sortuko da.
- Toki-mailako kronikak: Komunikabideei informazio emango zaie.

### III.6. PLAN OROKORREN EGITASMOAREN BEHIN-BEHINEKO ETA BEHIN BETIKO ONESPENAK

Herritarrek parte hartzeko prozesua bukatu ondoren, eta jendurreko informazio epean egindako alegazioak aztertuta, Udalak behin-behinean onetsiko du agiria (beharrezko aldaketekin, hala badagokio).

Ondoren, Udalak erabaki hori Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari bidaliko dio, horrek gaiari buruzko txosten loteslea egin dezan.

Behin betiko onespenaren agiria edo, hala badagokio, Plan Orokorren egitasmoan egindako aldaketak bilduko dituen testu bateratua, Arabako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Arabako Lurralde Historikoko gehien saltzen den egunkarietako batean argitaratuko da, eta horren kopia bat Arabako Foru Aldundiko hirigintza plangintzako administrazio erregistrora bidaliko da, aldaketa zehatzari buruzko agiriak edozeinek kontsultatu ahal izango dituela bermatzeko.

## IV. KOMUNIKAZIO PLANA: ESTRATEGIAK

#### a) Prozesuaren identitate orokorra:

Prozesuaren identitate orokorra komunikazio planaren zeinu bezala balioko du, talde teknikoak prozesuaren adierazgarri izango den **izen eta logotipo** bat proposatuko du beti ere udal-taldearen eta komisio teknikoaren ikuspuntua kontutan harturik.

#### b) Lehen difusioa eta deialdi orokorra:

Prozesu osoaren difusioa egingo da eta berorren **aurkezpen orokorra**, zeinetan (p1) hiri-gintza kontzeptu orokorrak azaltzeaz gain Plan Orokorraren idazketa prozesua azalduko da.

c) PPCaren kronogramaren agenda:

Lehen azaldutako kronogramari agenda diseinatu beharko da. Bertan, egunak eta ordutegiak zehaztuz.

### PROZESUAREN AURKEZPEN OROKORRA (P1)

**Aurkezpen** honetan Prozesuan inplikaturako eragile guztiak bilduko dira, teknikariak, udal ordezkariak, herri eragileak eta herritarrak orokorrean.

Lehen azaldutako azalpen orokorrez gain, Parte Hartze programa osoa azalduko da eta komunikazio plana.

Jarraian **puzzle erraldoia** eraikiko da eta irudia herriko gune adierazgarri batetan jarriko da, irudia gainontzeko faseetan ateratako ondorioen **oinarria** izan dadin.

### KOMUNIKAZIO PLANA: IHARDUERAK

1. **Aurkezpena eta saio publikoa. (P1)**
2. **Inkestak:** Etxebizitza, lana, mugikortasuna, etab. Inguruko inkestak egingo dira.
3. **Diptikoak:** Diptikoek HAPO-aren Parte Hartze Programaren eta komunikazio planaren sintesia jasoko dute..
4. **Kartelak:** Kartelek HAPO-aren Parte Hartze Programaren eta komunikazio planaren sintesia jasoko dute.
5. **Web ikusgarritasuna:** Koadrilak duen webean, Zalduondori dagokion atalean, esteka bat jarriko da, zeinetan garrantzizkotzat jotzen den informazioa igoko den.
6. **Ikus entzunezkoak (proiektzioak):** prozesuaren deskribapen eta azalpenerako.

Donostia, 2018ko martxo

RAY MENDIBURU ABAD




Arkitekto Zuzendaria

ZALOA LAS HAYAS MADARIAGA



Arkitektoa

MARTIN FERRAN ZUBILLAGA



Arkitektoa